

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 16a

651. zenbakia

KIROLA/ Martxoan sinatutako hitzarmena amaitzeaz dago, eta luzatzeko asmoa dute

Udala eta Aspe: 2006. urterako akordioa gertu

EDU MENDIBIL

Bergarako Udalak eta Aspe pilota enpresak interesa azaldu dute 2006 urtean elkarlanean jarraitzeko. Martxoan biek sinatutako hitzarmena amaitzeaz dago. Hala ere, Udaleko iturrien arabera, hurrengo urterako konpromisoa gertu dago.

Bergarako Udalak eta Aspe enpresak martxoaren 4an sinatutako hitzarmena abenduan amaituko da. Hasiara baten, 2006 urtean elkarlanean jarraitzeko akordioa gertu dago. Victoriano Gallastegi alkatea eguaztenean bertan

Aspeko arduradunekin biltzeko zen, hitzarmen berriaren nondik norakoak zehazteko. Aspeke zein Udalak Bergaran profesional mailako jaialdiak antolatzen jarraitzeko interesa azaldu dute.

Martxoan sinatutako hitzarmenaren arabera, abendura bitartean Aspeke 15 pilota jaialdi antolatzeko konpromisoa hartu zuen. Azkenean 23 jaialdi izango dira. Udalak 27.500 euro inguru ordaindu ditu trukean.

Alde biak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin. Udaleko ordezkariak pozik daude Udala Pilotalekua lehen planora itzuli delako eta Aspekoen balorazioa ere positiboa da.

EGUBERRI EGUNEAN, PARTIDUAK

Aspeke Gabonetarako iragarri duen txapelketaren barruan, pilota jaialdia izango da abenduaren 25ean Bergaran: *estelarrean*, Titin III.a-Eulate eta Xala-Lasa bikoteak izango dira aurrez aurre egun horretan. Beste finalerdia Tolosako Beotibarren jokatu da, abenduaren 28an: Irujok eta Pascualek Gonzalez eta Goñi III.aren aurka neurtuko dituzte indarrak. Gabonetako txapelketako finala, berriz, urtarrilaren 1ean jokatu da, Udala Pilotalekuan.

Bestalde, domeka honetan, hilaren 18an, pilota jaialdia egongo da Bergaran, 17:00etan.



BERRIGARA

Udala Pilotalekua lehen planora itzuli da aurtan. Irudian, Martinez de Irujo.



Nafar Feria bihar San Antonion

Gure Ametsa elkarteak antolatuta, bihar, zapatua, Nafar Feria izango da San Antonion. Feria 10:30ean zabalduko dute. Meza 11:30ean izango da eta 13:00etan IV. Serafin Esnaola jaiotzen lehiaketako sari banaketa egingo dute. Bitartean DJ Angie arituko da giroa alaitzen. Alai taldearen emanaldia izango da 13:30ean eta, bukatzeko, pintxoak eta herri bazkaria Gure Ametsan.

LABUR

Esklerosi anizkoitzaren alde diru batzea bihar eta odol ateratzea eguaztenean

Esklerosi anizkoitzaren alde dirua batuko dute bihar, zapatua, goizez, Bergaran. Bestalde, Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, odol ateratzea egingo dute eguaztenean, hilaren 21ean, Seminarioan, 18:30etik aurrera. Urteko azken ateratzea izango da.

Bidezko merkataritzako postua jarriko du FISC erakundeak zapatuan, San Martin plazan

FISC erakundearen eskutik, bidezko merkataritzako postua jarriko dute bihar, zapatua, San Martin plazan, 10:00etatik 14:00etara. Nikaragua, India, Kongo eta beste hainbat herrialdeetako produktuak egongo dira salgai. Produktuon salmentarekin hango biztanleen egoera apur bat hobetzea du helburu FISCe, besteak beste.



**Ezkontzak
Jaunartzeak
Erreportajeak
Estudioa**

ALBUM DIGITALAK, ANALOGIKOAK, FAMILIA ALBUMAK,
ZAHARBERRITZEAK, KOPIAK ETA HANDITZEAK, FOTO-MONTAIAK
ZUHAITZ GENEALOGIKOAK, ARGAZKI ERREPRODUKZIOA,
LABORATEGI PROFESIONALAREN ZERBITZU ETA ERREBELATUAK

Beste estila bat
www.urkan.com
Ozaeta 1 943 76 30 33 .Bergara
urkan@urkan.com

Udazken kulturala 05



Abenduaren 17an, 22:30ean
Gabonetako kontzertua, Udal pilotalekuan
 Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Bergarako Orfeoia eta Gabero Abesbatzak eskainia, Bergarako Musika Eskolaren laguntzarekin

Abenduaren 20an, 19:00etan
Musika Eskolako ikasleen kontzertua, Udal pilotalekuan

Abenduaren 24an, 18:30ean
Olentzerok umeen kartak jasoko ditu San Martin plazan

Abenduaren 27, 28, 29 eta 30ean, 16:00etatik 19:30era
Hauren gabonetako jolas parkea, Labegaraieta kiroldegian

Abenduaren 28an, 19:00etan
Nairobitarra kultur taldearen, "Nairobitarra, milioi bat kilometro lur arras" ikus-entzunezkoa, Osintxu auzoko ludotekan, KUTXAren laguntzarekin

Urtarrilaren 5ean,
Bizarzuri 17:30etan, San Martin plazan
Erregeen Kabalgata 19:30ean, herrian zehar



BERGARAKO
UDALA

Gabon zoriontsuak herritar guztioi!



Gabonetako eskaintzak

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Neurriak
38tik 60ra

GIZARTEA/ Elikadura batzeko kanpaina hasiko dute hurrengo astean

Sahararen aldeko Bubisher elkarteak sortu dute

EDU MENDIBIL

Sahararen subiranotasunaren aldeko Bubisher elkarteak sortu berri dute Bergaran. Azken urteotan bezala, Gabonen atarian elikagaiak batzeko kanpainarekin hasiko dira: azukrea, atun latak eta konpresak batuko dituzte hilaren 19tik urtarrilaren 7ra arte.

Sahara aldeko txori bat da Bubisher eta izen hori jarri diote Bergaran sortu berri duten elkarteari. Komite Internazionalistak taldeak eta beste hainbat elkartek bideratu dute Sahararen aldeko kanpaina azken urteotan. Aurrerantzean Sahararen subiranotasunaren aldeko Bubisher elkarteak egingo du lan hori. Hogei bat lagun ari dira elkartearen eta Elsa Manso da presidentea. Martitzenero elkar-tzen dira kultura etxean, 20:00etan.

ELIKAGAIK BATZEKO KANPAINA

Esan bezala, elikagaiak batzeko kanpaina egingo dute abenduaren 19tik urtarrilaren 7ra arte. Iaz bezala, azukrea, atun latak eta konpresak batzea da kanpainaren helburua. Herriko hainbat dendatan eta udaletxean jasoko dituzte.

Bestalde, kanpainak irauten duen bitartean Sahararen gaineko erakusketa ikusgai izango da Nahikari tabernan.

Herriko ikastetxeetan, berriz, Gabonen ostean egingo dute bil-



Saharako egoeraren gainean sentsibilizazioa piztea du helburu Bubisher elkarteak.

keta, urtarrilaren 7tik 21era hain zuzen ere. Azken urteotan erantzun bikaina jaso dute Bergaran.

Elikagaiak batzeko kanpainaz gain, urtean zehar Sahararen gaineko beste hainbat ekitaldi egingo dituzte Bubisher

elkartekoek. Saharako egoerarekiko sentsibilizazioa piztea izango da helburua.

Era berean, uda partean izango den Saharako umeak Euskal Herrian jasotzeko kanpainan hartuko dute parte.

LABUR

Hainbat ekitaldi erretiratuen egoitzan eta ardo dastatzea BEKEren eskutik

Mus txapelketa izango da erretiratuen egoitzan astelehenean, hilaren 19an, 16:00etan eta briskakoa martitzenean, ordu berean. Billar txapelketa ere iragarri dute. Hilaren 21ean, berriz, sari banaketa egingo dute 16:00etan eta ondoren, txistorra jana eta dantzaldia.

BEKE elkarteak, berriz, ardo dastatzea iragarri du hilaren 20rako, Artatse elkartearen, 19:00etan, Mikel Garaizabalekin. Izenematea 625 70 78 92 telefonoan. Plaza mugatuak.

Euskal presoen aldeko zozketan parte hartzeko txartelak jarri dituzte salgai

Euskal presoen aldeko txartelak salgai daude ohiko tokietan, 3 euroren truke. Txartelok hilabete osorako baliagarriak dira: egunero 30 euro zozketatzen dira eta egubakoitzetan, 60 euro. Hileroko sari berezia, berriz, 300 eurokoa da.

1981ean eta 1984an jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute urtarrilaren 14an

1981ean jaiotakoek bazkaria egingo dute urtarrilaren 14an. Izenematea (25 euro) Euskadiko Kutxan egin daiteke, 3035 0009 1200 9007 5931 kontu korrantea. 1984an jaiotakoek egun berean egingo dute bazkaria. Izenematea Euskadiko Kutxan baita, 3035 0009 1000 9007 5920 kontuan.

Taila elkartekoek batzarra astelehenean eta pintoreen erakusketa kultura etxean

Taila Eskolakoez batzarra egingo dute astelehenean, hilaren 19an, Zabalotegin: 18:30ean lehen deialdia eta 19:00etan bigarrena. Gaur, egubakoitza, herriko margolarien erakusketa zabalduko dute kultura etxean. Hilaren 31ra arte izango da zabalik.

Arau subsidiarioen aurrerapenaren gaineko erakusketa udaletxean dago ikusgai

Arau subsidiarioen gaineko erakusketa udaletxeko osoko bilkuren aretoan ikusgai dago: aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara dago zabalik erakusketa. Zapatuetan, berriz, goizez bakarrik.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak	Paper pintatuak
Moketa eta sintasola	Harea zorrotada
Iztuku esponjatua	Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Ganbara
TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

**Bizkarreko mina • Bihurrituak • Tendinitisa
Masajeak • Erreuma • Etxetara fisioterapia
Errehabilitazioa**

Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegaraieta industrialdea • 20570 Bergara
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
e-maila: ormazabalfisioterapia@yahoo.es

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*


Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Durangon salgai!

Patologia orokorra. Atal orokorra, amas aparatua eta zirkulazio-aparatua Eduine Ugarte 52,50 €	Elementuren taula penodikoa (14 urteik aurrera) - Eskuko trula (21x29,7 cm) 4 € - Horma-irudia (90x60 cm) 20 €	Hitzmix (12 urteik aurrera) CD-ROMa 29,95 €
EUKLIDES. Elementuak Pablo Angulo Martín 36,50 €	Merkataria eta globalizazioa José Luis Sampedro Ibuztegia: Eduardo Monasterio 12 €	Urpeko erreinua (6-12 urte) CD-ROMa 27,45 €

liburuak • hiztegiak • aldizkaria • multimedia CD-ROMak • ikus-entzunezkoak • katalogoa

Elhuyar Fundazioa
Zelai Haundi, 3 • Osinaide ind. • 20170 Usurbil • tel.: 943 36 30 40
elhuyar@elhuyar.com • www.elhuyar.org/denda



BERRIGARA

Gabon Sarian 100 bat pilotari ari dira. Ligaxkako partiduak izango dira domekan. Finalak hilaren 29an eta 30ean jokatuko dira.

PILOTA/ Muguruzak eta Gutierrezek Añorgari irabazi beharra daukate mailari eusteko

Mailari eusteko partidua erabakigarria domekan

EDU MENDIBIL

Ander Muguruzak eta Igor Gutierrezek Añorgako bikotearen aurka partidu erabakigarria izango dute domekan Udal Pilotalekuan. Aurretik, Gabon Sariko partiduak izango dira domekan, 11:00etan hasiko den jaialdian. Oier Aldai-Jon Larrañaga bikotea Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako finalerdietan da.

Senior lehen mailan jarraitzeko Añorgako bikoteari irabazi behar dira Muguruza eta Gutierrez. Azken jardunaldian Aretxabaletan irabazi zuten, 21-22, eta domekan irabaziz gero, mailari utsiko dio bikote bergararrak.

GABON SARIA, DOMEKAN

Senior mailako partiduaren aurretik, Gabon Sariko ligaxkako azken partiduak jokatuko dira domekan. Hilaren 19an, 20an eta

21ean final laurdenetako partiduak izango dira, 18:00etan. Sei urtetik hasi eta nagusien mailara 100 bat pilotari ari dira txapelketan.

ALDAI ETA LARRAÑAGA, IKAZTEGIETAN
Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan, Oier Aldaik eta Jon Larrañagak Altzoren aurka jokatuko dute gaur, egubakoitza, Ikaztegietan, 20:30ean. Irabazleak finalerako sailkatuko dira.

LABUR

Jose Agustin Gurrutzagaren eta Juanjo Lopezen kirol argazkiak saritu dituzte

Jose Agustin Gurrutzagak lehen saria irabazi du Kirolgi Fundazioak antolatutako IV. Argazki Lehiaketan, koloretako kategorian, 500 euro eta Kirolgiren trofeoa jaso ditu Gurrutzagak.

Bestalde, Juanjo Lopez Aloñako mendi sailak antolatutako lehiaketan saritu dute. *Mendia eta natura* atalean lehen saria eskuratu du Juanjo Lopezek, *Croda da lago* argazkiari esker. 300 euroko saria irabazi du.

Senior mailako mutilen eskubaloi taldeak Elgoibar hartuko du domeka eguerdian

Azken jardunaldian Urnietakori 29-22 irabazi ostean, senior mailako mutilen eskubaloi taldeak Elgoibarren aurka jokatuko du domekan Labegaraletan, 12:15ean.

Azken partiduetan erakutsitako bolada onari eutsi nahi diote bergararrek.

Dirulaguntza eskaera urtea amaitu baino lehen egin beharko dute kirol elkarteek

Udal Kirol Zerbitzuak aditzera eman duenez, kirol elkarteek abenduaren 31ra arte daukate 2005eko dirulaguntzen 2.zatia jaso ahal izateko agiriak entregatzeko epea. Era berean, 2006rako dirulaguntzen eskaera urtea amaitu baino lehen egin beharko dute. Argibideak 943 77 91 67 telefono zenbakian.

Antxintxika triatloi taldeak hurrengo denboraldirako izenematea zabaldu du

Hurrengo denboraldian Antxintxika triatloi taldean parte hartu nahi dutenek (neska zein mutil) ondoko telefono zenbakira deitu dezakete: 660 52 95 16. Debagoieneko Antxintxika taldekoak laster hasiko dira hurrengo denboraldia prestatzen.

Igeriketa egokituko eskolak eskaintzen dira, Debagoieneko kirol zerbitzuen eskutik

Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta, ezgaitasunen bat dutenei zuzendutako igeriketa egokituko ikastaroa eskainiko dira. Argibideetarako Udaleko Kirol Zerbitzura edo 943 77 91 67 telefonora jo dezakezue.

▶ margo orokorra
 ▶ margo dekoratiboa
 ▶ margo industrialia
 ▶ umeentzako dekorazioak
 ▶ erreformak orokorrean

margolan
m a r g o a k

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

KABIA
ERRETEGIA

Orain astelehenetik larunbatera zabalik

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Ogitarkekoak
- Asteburuetan bazkariak eta afariak

Zubiaurre 23 Tel.: 943 76 23 08

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

MENDIA/ Pol-Poleko bazkideei bulegora jotzeko eskatu diete, datuak berritzeko

Eskiatzera joateko irteerak Pol-Polen eskutik

E.M.

Pol-Pol Mendizale Elkarteak eski sailak hainbat irteera antolatu ditu urtarrila eta martxoa bitartean. Era berean, mendiko federatu txartela eskuratzeko aukera dago elkartearen egoitzan.

Mendiko federatu txartela berri-
tu nahi dutenei bulegotik pasatzea eskatzen zaie. Lehen aldiz txartela eskuratu nahi duten pertsonen nortasun agiria eramatea

beharrezkoa da. Aurten 510 lagun egon dira federatuta.

Era berean, Pol-Poleko bazkide direnei deia egin diete, datuak berritzeko.

Gaur egun 1.700 bazkide dauka Pol-Pol mendizale elkarteak, baina horietako askoren datuak berritzeke daude aspalditik. Pol-Poleko bulegoa astelehenetik eguenera dago zabalik, 19:00etatik 20:30era.

Edozein argibide lortu nahi baduzue 943 76 48 51 telefonora deitu dezakezue.

LEHEN ESKI IRTEERA, BAQUEIRARA

Eski irteerei dagokienez, lehen-bizikoa urtarrilaren 20tik 22ra egingo dute, Baqueirara. Otsailan ere Baqueirara joango dira, hilaren 17tik 19ra bitarteko aste bukaeran. Martxoan bi irteera izango dira: hilaren 3tik 5era Baqueirara eta hilaren 24tik 26ra Formigalera. Azkenik, Aste Santuan, Alpeetara ohiko irteera egingo dute, Tignesera, apirilaren 14tik 22ra. Argibide gehiago Pol-Poleko bulegoan eskura daitezke.



ARTXIBOA

Lehen eski irteera urtarrilaren 20tik 22ra izango da, Baqueirara.

Bergara-Ilintxa zapatuan Agorrosinen

E.M.

Bergara futbol taldeak Ilintxa hartuko du bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean. Legazpiarrak bergararren aurretik dira sailkapenean, 3. tokian, bi puntuko aldearekin.

Beraz, garrantzi handiko partidua da biharkoa Bergarako taldearendako. Azken jardunaldian 1-4 irabazi zion Bergarak Santo Tomas Lizeoari. Mikel Oterok (2), Ina Dobaok eta Imanol Cabanillasek egin zituzten golak.

BESTE HIRU PARTIDU

Asteburuan beste hiru futbol partidu jokatuko dira Ipintzan: infantil mailako taldeak Arrasateren aurka jokatuko du zapatuan, 10:00etan; lehen gazte mailan, Bergara eta Antoniano izango dira aurrez aurre, 17:30ean.

Egindako azken jardunaldian Antzuolan galdu zuten bergararrek, 5-1eko emaitza lortu zuten.

Domekan, ohorezko kadete mailako taldeak Kostkas Bihotza hartuko du, 11:30ean.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Erregional mailako ligan 4. postuan dira bergararrak, Ilintxaren atzetik.

PARTIDUAK

ZAPATUAN, BARRUAN

09:30: Mongatxu.-Paco Cia. Makanaki
10:30: Pirulo.-Makanaki. Mongatxu.
11:30: Kalaveras-Txakurra. Brescia
12:30: Brescia-Niu Tim. Kalaveras
16:30: A Ze Flaxa-Komando P. SDTNT
17:30: SDTNT-Agirrebeña. Komando

DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Errotagain-All Blacks. Irubide
17:00: Teatekh-Irubide. Fit Autom.
18:00: Fit Autom.-Egurre. Santana
19:00: Santana-Guri Guri. Pub Irish
20:00: Pub Irish-Belengua. Guri Guri

OHARRA: Hurrengo jardunaldia Gabonen ostean jokatuko da.

Euskal Presoak Euskal Herrira Elkartasun zozketa

Erosi ezazu abenduaren 31 baino lehen herriko tabernetan

ELKARTASUNA ADIERAZIZ
SARIAK IRABAZI!

Sariak astelehenetik ostiralera egunero
SARI BEREZIA: Urtarrilaren 5ean 300 euro

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ezpeleta

Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

Helbide berria

Urbitate Pol. industrial,
U1 sekzioa, 12 Pabilioia
Eroski hipermerkatu ondoan
48220 ABADINO
Tel.: 94 621 58 10
Faxa: 94 620 28 15



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

MUSIKA/ Gabonetako kontzertua Udal Pilotalekuan, 22:30ean; *Deliver us* abestia eta *Adeste fideles* Gabon kanta elkarrekin eskainiko dute

Aritzetak, Orfeoiak, Gaberok, Bandak eta Orkestrak emanaldia egingo dute bihar

IRATI AGIRREAZALDEGI

Urteroko ohiturari jarraituz, Gabonetako kontzertua eskainiko dute herriko hainbat taldek. Emanaldia bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan izango da, 22:30ean. Udal Musika Bandak, Aritzetak, Orfeoiak, Gaberok eta Orkestra Sinfonikoak jardungo dute bertan. Kontzerturako sarrerak sei euro balio du.

Udal Bandak, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean, pieza bakarra eskainiko du: *Saga candida*, hain zuzen ere.

Aritzeta abesbatzakoek lau kantu abestuko dituzte, Imanol Urtzelairen esanetara: *A tu lado*, *In the first light*, *Corazón coraza* eta *Al nacimiento del hijo de Dios*.

Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzenduta, Orkestra Sinfonikoak *La bella Galathea* obertura eta *Amor brujo* obrako *Danza ritual del fuego* pieza joko ditu.

Orfeoiak eta Gabero abesbatzak *Seussen mundua* laneko zati bat eskainiko dute, David Azurtzaren zuzendaritzapean.

Amaieran, guztiek batera *The prince of Egypt* filmaren soinu bandako *Deliver us* abestia jo eta kantatuko dute; abesti horretan Ainara Ortegak jardungo du bakarlari moduan. Kontzertua, ohikoa den moduan, *Adeste fideles* Gabon kanta ezagunarekin amaituko dute.

MUSIKA ESKOLA

Bestalde, Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute abenduaren 20an Udal Pilotalekuan, 19:00etan.

Guztira, 300 ikaslek jardungo dute: abesbatzakoek, orkestrakoek eta gazte bandakoek eta baita ahots teknikako, kantuko eta koraleko ikasleek ere. Musika Eskolako irakasleek ere abesti bat eskainiko dute.



Udal Musika Bandak *Saga candida* obra eskainiko du; eta gainontzeko taldeekin batera *Deliver us* eta *Adeste fideles*.

ELKARRIZKETA

IÑIGO GALLASTEGI 'POTI'/SLACKWATER JACK TALDEKO BATERIA JOLEA

“Bluesa eta rocka egiten dugu, eta lagunen aurrean jotzeko irrikaz nago”

EDU MENDIBIL

Slackwater Jack blues taldeak joko du abenduaren 23an, Go-Jam aretoan. Bartzelonan bizi den *Poti* bergararra da taldeko bateria.

Danni Leigh country kantariaren taldean ere dabil Poti.

Zelan sortu zitzaizun Danni Leighekin jotzeko aukera?

Karanbola bategatik. Bartzelonako The Redneck House Band country taldean nabil azken urtean. Terrasako Mister Banjo jaialdian jo genuen ekainean eta han

ezagutu nuen Danni Leighen taldea. Uda ostean bateria behar zutela eta deitu egin ninduten. Norvegian eta Frantzia izan naiz beraiekin. Esperientzia ikaragarria izan da country estilok hain ezaguna den Danni Leighekin jotzea. Urtarrilean Holandan bizpahiru kontzertu emango ditugu.


Zelako emanaldia egingo duzue Go-Jamen?

Dannirekin ari garen hiru lagun joango gara: Adam Roach (abeslaria eta gitarra), Mike McKenzie (baxua) eta ni neu. Blues eta rock & roll abestiak joko

ditugu, 1950 hamarkada inguruko abesti zaharrak gehienak. Gure aurretik Belceblues talde bergararrak joko du. Gauza berezia da herrian jotzea. Lagunen aurrean jotzeko irrikaz nago... Lista pasatuko dut! (barre) Ea aurrerago Dannirekin joateko aukerarik dugun...

Zein estilotan murgiltzen zara gusturago?

Rockarekin gozatzen dut gehien. Dannik rock disko bat grabatu nahi du orain, European gehiago ezagutzera emateko. Oso gustura nabil. *Flipatzen*: pentsa, lehen autografoak sinatu ditut...



Danni Leigh country abeslaria eta atzean, *Poti*.



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

EDEL
TAPIZ DENDA


Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

MINGAINARITIRAKA



Inigo Manso

MANSO ARDOEN SALTZAILEA

Manso Hermanos ardoen saltzailea, zuzendari komertziala, dugu Inigo. Asko gustatzen zaio ardoen mundua. Elkarrizketaren egunean bertan Ribera de Dueroko ardozale batzuekin hitzordua zuen, hango ardoak probatzeko.

Ardoaren mundua gustuko izango duzu, ezta?

Bai, asko gustatzen zait; 18 urterekin hasi nintzen mundu hone-tan sartzen eta oso gustuko dut.

Zer behar du ardo on batek?

Gorputza, kolorea eta fruta zaporea izatea.

Errioxara sarri joaten zara?

Bai, normalean, lanera; ardoak probatu, upeltegiak bisitatu...

Ez da lan txarra, hortaz.

Ez, ez, ni oso gustura ibiltzen naiz, baina ez naiz mozkortzera eta parrandara joaten, e!

Txikiteak behera egin du.

Bai, galtzen doan ohitura da; lehen, egunero egiten zuen jende-ak txikitea. Orain, berriz, asteburuetan bakarrik.

Parrandan, zer edaten duzu?

Egunez, ardoa edo garagardoa; gauez, berriz, gintonika.

Automobilarekin hara eta hona ibiltzen zara egunero. Pazien-tzia handiko mutila zaitugu?

Ez da horrenbesterako; Bergaran eta inguruko herrietan ez dut arazorik izaten, ilara bikoitzean laga eta kito. Donostiara joaten naizenean, berriz, amorratu egiten naiz.

Herrian zenbat taberna dauden badakizu?

70 bat egongo dira.

Euskaldunok asko edaten dugun ospea daukagu. Hala da?

Toki guztietan edaten da. Ni Valladoliden bizi izandakoa naiz eta han ere edaten dute. Baita Frantzian ere; bestela, mugan dauden dendetara joan besterik ez dago.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Musika entzutea eta lagunekin egotea.

Musika talde bat?

Pixies.

Zerk amorratzen zaitu?

Faltsukeriak.

Bukatzeko, amets bat?

Bakean bizi ahal izatea; denok askatasunean bizi ahal izatea, elka-rrri kalterik egin gabe.

AINZANE IRIZAR

KANPOTARRAK BERGARAN

MIGUEL ANGEL FERNANDEZ

27 URTE / MEXIKARRA / ORAIN DELA BI URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

“Nire ametsa da Angiozar oinarrizko kanpamendu hartu eta munduan bidaiatzea”

AINZANE IRIZAR

Ia lau urte daramatza Miguelek Mexikotik kanpora bizi izaten. “Mundua ezagutzera irten nahi nuen, eta halaxe egin nuen”, azaldu digu. Harrezkero Espainiako Estatuko hainbat tokitan egon da bizi izaten: Bartzelonan, hegoaldean, Madril-en, Eivissan (Ibiza)... Hain zuzen ere, hantxe zegoela Irati ezagutu zuen. Gaur egun bere neska-laguna da Irati, bergararra, eta haren-gatik etorri da Bergarara.

“Orain dela bi urte etorri nintzen lehenengo aldiz Bergarara, eta ordutik hona hementxe bizi naiz; Angiozarren ezarri dut nire oinarrizko kanpamendua eta urteko hilabete asko hementxe egiten ditut”, diosku Miguelek.

Izan ere, ez da geldirik egotea mexikarra; hara eta hona ibiltzea

“Mexikon beti errezeloz ibili behar duzu; hemen, berriz, lasai-lasai ibil zaitezke kalean”

du gustuko. Gehienez, lau hila-bete egin ditu Bergaran.

Diseinu, dekorazio eta arte ikasketak egin ditu Miguelek, eta horretan lan egitea bilatzen du. “Oso zaila dago lan kontua; nire ametsa izango litzateke hemen lan egitea, Angiozar nire oinarrizko kanpamendua izatea eta bidaiatzea, mundua ezagutzea”. Asia, Afrika... Mundu osoa ezagutzeko beharra sentitzen du

Miguelek gaztetxotatik. Eta hori-xe du amets.

EIVISSATIK EUSKAL HERRIRA

Aldaketa handia izan zen Migue-lendako Eivissatik Euskal Herri-ra etortzea. Zer esanik ez, Mexi-koren eta Euskal Herriaren arteko ezberdintasunak. “Ni Mexiko Hirikoa naiz, eta 23 bat milioi biztanle ditu. Orain, berriz, Angiozarren bizi naiz. Pentsa ezazu zelako desberdin-tasuna! Baina horrexen beharra neukan, toki lasai baten behar-ra”, azaldu digu.

Euskal Herria asko gustatu zaio, eta baita euskaldunak ere: “Jende jatorra topatu dut hemen; ni Iratirekin etorri nintzenez, ez dut batere arazorik izan lagun tal-dean sartzeko”.

Gainera, hengo lasaitasuna asko estimatzen du: “Mexikon beti errezeloz ibili behar duzu, kontu handiarekin; hemen, berriz, lasai-lasai ibil zaitezke kalean. Adibidez, taberna baten diru-zorroa ahazten bazaizu, itzu-litakoan han topatuko duzu; Mexikon hori pentsaezina da”.


MEXIKOKO JANARIA

Bere jaioterriko janariaren hutsunea nabaritzen du, bereziki: “Hango tortillak, janari bizia (pikantea)... Asko gogoratzen naiz horrekin”. Familiaren hutsunea ere nabaritzen du, noski. “Arre-ba laster etortzekoa da, bisitan; irrikan dago. Seguru nago asko gustatuko zaiola Euskal Herria”.

Gurasoak etortzea zailagoa izango dela azaldu digu Migue-lek, egoera ekonomikoa ez da-eta oso ona Mexikon. Dena dela, azke-neko lau urteotan, behin baino gehiagotan egon da Miguel gura-soak bisitatzen.

Euskaraz ere hitz egin digu pixka bat; Iratik zertxobait irakatsi diola esan digu.

Etorkizuna munduan barre-na bidaiatzen eta Angiozarren bizi izaten ikusten du, edo ikusi nahi du Miguelek. Ea, bada, lana aurkitzen duen eta zorte on-ona daukan!



GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...


Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

Gabon hauetan ere...

Jolas
Zure Opari Denda

Barrenkale 27 • Tel.: 943 76 46 48

BONO FOTOA



MIGUEL ANGEL ELKORBEREZIBAR

Zein da
bukaeran ageri
den auzunearen
izena?



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AIDA PAYArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Aida!
Galderaren erantzun zuzena: **Barrenetxe baserria.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Codorniu cava estra

75 cl-ko botila

4,75 €

790 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

**Gaztetxea eta
Els Joglars, 1986**

Gaztetxeak antolatuta, Els Joglars antzerki-taldearen emanaldia izan zen Bergarako Udal Pilotalekuan, 1986ko abenduan. Hain zuzen ere, *Los virtuosos de Fontainebleau* lana eskaini zuten katalanek, frontoia jendez gainezka zegoela. Erretratuan azaltzen direnak antolaketa lanetan ibili ziren egun hartan. Hauek dituzue taula gainean daudenak, ezkerretik esku-mara:

Aurrean: Alex Gardoki, Rober Ruf Etxaniz eta Diego Gonzalez.

Bigarren ilaran: Mikel Castelo, Joseba Moñux, Jaione Ziarsolo, Manu Muniategi, Nerea Ibabe, Joxe Lazkano, Izarra Arriaran, Silvia Mendibil, Jon Altuna Oxan, Arritxu Etxabe (atzerago), Xabier



Errasti Herras eta Arantxa Hernandez.

Atzerago: Miguel Albeniz, Fernando Albeniz, Joxu Araña, Agustin Oianguren (zutik), Joserra Etxeberria,

Mikel Lizarralde, Patxi Molina, Nartxi Azkargorta, Mireia Gabilondo eta Asis Iriondo (azken laurak zutik).

Argazkia Egin egunkariko Bergarako kronikan argitaratu

zuten. Esan bezala, gaztetxeak antolatutako emanaldia guztiz arrakastatsua gertatu zen.

Argazkia: Jesus Mari Kalboetxeaga

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 16**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ZAPATUA, 17**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- DOMEKA, 18**
ZABALA. Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 19**
GUALLAR. San Antonio 5 943 76 11 05
- MARTITZENA, 20**
ESTELLA. Matxiategi 5 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 21**
MOZOS. Iparragirre 2 943 76 12 15
- EGUENA, 22**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
 - Ertzaintza 943 53 47 20
 - Asepeyo 943 76 16 43
 - Pakea 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua 943 76 62 23
 - Odol emaleak 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa 943 77 91 32
 - Igerilekuak 943 76 20 51
 - Kultura etxea 943 77 91 58
 - Liburutegia 943 77 91 62
 - Kiroldegia 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
 - Erregistroa 943 76 13 15
 - Jardun 943 76 36 61
 - Postetxea 943 76 26 85
 - Bedelkar 943 76 04 68
 - Akulu AEK 943 76 05 18
 - Udal Euskaltegia 943 76 44 53
 - Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
 - San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarretetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIA EZ PADA / Gabonetako argi gutxiago ipini dituzte azken urteotan. Zer iruditzen zaizu?




YOLANDA GARAI



EMI ROMAN



BLANCA ARENAZA



MATIAS AZKARATE



MIGUEL ALBENIZ



ARANTZAZU ALTZERREKA

Ez zait ongi iruditzen, baina erabakia nire esku ez dagoenez... Aukera eman-go balidate Gabonetan argi gehiago ipiniko nituzke, eta herriko toki gehiagotan, gainera. Gabon girorako aproposak dira eta.

Gustuko ditut Gabonetako argiak; beraz, ez zait ongi iruditzen gero eta gutxiago ipintzea. Ume bat ere badut eta eurei ilusia egiten die. Gastua dela badakigu, baina beste gauza batzuetan ere gastatzen dugu.

Ongi dagoela uste dut. Herri sarreretan eta plazan, toki esanguratsuetan ipini eta nahiko da herriari Gabon giroa ematea. Argiekin beste toki batzuetan gehiegizko gastua egiten dela iruditzen zait.

Erabaki hori hartu duenak zerbaitegatik egingo zuen; beraz, ongi iruditzen zait. Argi gutxi batzuk ipiniz gero duten eginkizuna betetzen dutela pentsatzen dut; beraz, ipini dituztenak nahikoa dira.

Ongi iruditzen zait. Argi gutxiago ipinita dirua aurrezten da, eta diru hori beste gauza batzuetarako erabil daiteke. Horrelako argien faltarik ez dut sumatzen, ez diet aparteko garrantzirik ematen.

Gaizki iruditzen zait. Uste dut argiek bizitasuna ematen diotela herriari eta plazako argiekin bakarrik erdi ingurua triste samar gelditzen da. Nire esku balego Gabonetan argi gehiago ipiniko nituzke.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ARTEKALEA OINEZKOENDAKO Herriar batek deitu digu esanez, Artekalea konpondu dutenez, oinezkoendako egin behar luketela. "Konponketak egiten hainbeste denbora eman ostean, ez al litzateke hobea izango autoak bertatik ez igaro eta kale hori oinezkoendako bakarrik izatea?", esan digu. /I.A.

BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Zurrutero"



—Erriko zurruteruak txikiteuan ikusten dabe elkar.

JON IRAEGI

BESTEKE SANA



"Esan dezagun argi: euskarazko liburu gutxi irakurtzen ditugu. Galdetu liburudenda eta liburutegi publikoetan"

ELENA LAKA / Abokatua
'Asteleheneko Goienkaria' / 05-12-12

ZUZENKETA

BERRIGARAko 650. alean, akats bategatik, *Beraiek diñoe* zutabeko egileari zegokion argazkia gaizki jarri genuen. Lander Juaristi zen iritzi artikuluko egilea eta ez Mikel Elkoroberezibar.

HAUGIROA!

MINIMOA **0 °C**
Zapatua, 10

MAXIMOA **11 °C**
Egubakoitza, 9

ASTEKO EURIA (l/m²) **27,2 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 7	10 °C	4 °C	1,3 l/m ²
Eguena, 8	10 °C	5 °C	21,9 l/m ²
Egubakoitza, 9	11 °C	7 °C	— l/m ²
Zapatua, 10	8 °C	0 °C	— l/m ²
Domeka, 11	8 °C	1 °C	— l/m ²
Astelehena, 12	8 °C	5 °C	0,2 l/m ²
Martitzena, 13	6 °C	5 °C	4,8 l/m ²

San Juan auzean jasotako datuak

BERAIEK DIÑOE / Jon Suinaga



Mundu aldrebasa

Bat-batean Aita Santua *pikoletoen* hiru adarreko zatarrarekin agertu zaigu. Bakea eta maitasuna pregonatzen duen erlijioaren ordezkari handiena; torturatu eta hiltzen duen poliziaren sinboloarekin.

Gipuzkoan nahiz eta jende gehiena abertzalea izan, gehien saltzen den egunkariak Euskal Herri espainolista bat defendatzen du.

Estatu Batuetan izendatu duten urteko marinea, etxeko lorategian ume batzuen kontra tiroka hasi zen.

"Molestatu egiten zuten", argitu zuen bere defentsan.

Gure Udalean alderdi bat gehiengoarekin gobernatzen, lege faxista bat herritarren eskubidearen aurrean jartzeagatik.

Israel, ONUren erabakiak ez betetzen errekorra daukana, eta USA, lehergailu nuklearrak erabili dituen herri bakarra; moraltasun eta justiziaren irakurgaiak ematen.

PPri, Irakeko inbasioaren gaizkideari eta Euskal Herriko

eskubideen zapaltzaile nagusiarri, ahoa demokrazia eta tolerantzia aldarrikatzen betetzen zaio.

Gehiago kutsatzen duen herriak ez du Kioto protokolori buruz ezer ere ez jakin nahi.

Udalak aldizkari bat atera du azaltzeko zein ondo eta ze gauza politak egiten dituzten

alkateak eta bere taldeak. Bitartean herria hankaz gora, antzoki barik, igerileku barik, Arrasatera goizero joateko 40 minutuko auto ilarak eta bidesariarekin... Eta horizontean hodei beltzak: obrak etxe garestiak eraikitzeak, konpon-

bide lardaskeria antzokirako...

Hurrengo Joko Olinpikoak Txinan ospatuko dira. Olinpiadak adiskide, solidaritate eta bakearen irudiak direla suposatzen da. Herri anfitrioian poliziek nekazariak hil egiten dituzte eta urtero 3.000 pertsona baino gehiago exekutatzen dituzte.

Garbi dago mundu honetan gauzak alderantziz doazela... Izango dira zoroak zentzudun bakarrak mundu honetan?

"Munduan gauzak alderantziz doaz. Izango dira zoroak zentzudun bakarrak mundu honetan?"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 02
Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegui
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 16a / 268. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA, 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Arrolaren batzorde berria hasi da lanean

AINTZANE IRIZAR

Urriaren Arrolaren zuzendaritza batzordeak deialdi larria egin zuen; jende berririk topatzen ez bazuten, elkarte desagertu egingo zen. Erantzun ona izan zuen deialdi horrek, eta dagoeneko hasi dira lanean batzorde berriko kideak.

Eneko Iturbek, Aitor Peñagari-kanok, Jose Mari Alberdik, Patri Bideluzek eta Andoni Balerdik osatzen dute Arrolaren zuzendaritza batzorde berria.

Horixe da Arrolak deialdi larri hura egin eta gero osatutako batzorde berria. Ez ziren, baina, bost lagun horiek bakarrik aurkeztu Arrolan lan egiteko. Gehiago izan ziren; datozen urtean, hortaz, badirudi egongo dela lanerako prest dagoen jendea. Dena dela, jende berria beti hartuko dute gustura Arrola elkarte-ko kideek. Orain dela hilabete batzuetatik hona, hortaz, zeharo aldatu da elkartearen etorkizunerako itzaropena.

EGUTEGI BERRIA EGIN DUTE

Batzorde berria lanean hasi da, esan bezala, eta dagoeneko, egutegi berria egin dute; egunak zehaztu barik dauden arren, hilabetez hilabete egingo dituzten irteerak erabakita daude. Hilabetero irteera bat egiteko asmoa dute antolatzaileek.

Urtarrilerako, adibidez, eski irteera antolatu dute, Candanchura; hilaren 14an eta 15ean



Batzorde berriko lau kide, Arrolaren egoitzan lanean.

Datorren urterako irteeren egutegia egin du batzorde berriak

izango da hori. Izena emateko eguna ere jarri dute: abenduaren 20an egongo da horretarako aukera, Arrolak Kalebarrean duen egoitzan.

Martxoan, Zumarragatik Azkoitira oinez joango dira; apirilean, Ataun-Lareo-Lizarusti ibilaldia egingo dute. Maiatzean, Errege Bardera-bizikletaz ibiltzera joango dira. Ekainean, Kanpazartik Urkiolara oinez egingo dute ibilaldia; uztailan, Debatik Zumaiara oinez joan eta gero, hondartzara joango dira.

Irailan, Finalista Eguna eta kanpaldia; urriaren, Garaioa bizikletan ibiltzera eta azaroan Andraitz-Zerain ibilaldia egingo dute.

LABUR

EHNA egiteko aukera izango dugu udaletxean bihar, zapatua, eta etzi, domeka

Herri gehienetan aurreko asteko zapatuan egon zen EHNA egiteko aukera. Antzuolan oraingo asteburuan egongo da aukera hori. Bihar, zapatua, 11:00etatik 13:30era eta 18:30etik 20:00etara. Domekan, berriz, goizez bakarrik, 11:00etatik 13:30era.

Herriko Pilota Txapelketako finalerdiak bihar, zapatua, jokatu dituzte, 11:00etan

Honako lau bikoteak sailkatu dira finalerdietarako: Luis Larrea eta Jon Aranguren; Andoitz Aranburu eta Iker Irizar; Mikel Bargiela eta Jon Pagaldai eta Aitor Aranguren eta Xabin Murua-mendiarrak. 11:00etan hasiko dira partiduak bihar, zapatua.



Pausokak batzorde berria dauka

Pausoka gurasoen elkarteak batzar orokorra egin zuen abenduaren 1ean. Hantxe, besteak beste, zuzendaritza batzorde berria osatu zuten. Hona hemen kide berriak: Nerea Irizar, Nerea Ruiz, Amaia Toledo, Mikel Kerexeta, Olatz Altzelai eta Bakarne Gastañares. Aurrerantzean, 11 kide izango ditu Pausokak, Haurreskolak ere bere ordezkaria izango du eta./A.I.



Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80


KULTURA

Umeendako bi ekitaldi izango ditugu: pailazoak eta ipuinak

Bihar, zapatua, ipuin kontalariaren emanaldia izango dugu. Etzi, berriz, domeka, pailazoekin ondo pasatzeko aukera izango dute umeek. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen *Supituki* ikuskizuna eskainiko digute.

Pailazo hirukote klasikoa osatzen dute Garik, Montxok eta Joselontxok: pailazo argia, bihurria eta tentela ditugu. Betiko umore horrekin, baina, ondo baino hobeto pasatzeko aukera eskaintzen diete umeei. Horixe egingo dute Antzuolan ere, etzi, domeka, Olanan etxean. 18:00etan hasiko da pailazoen emanaldia.

Supituki ikuskizuna eskainiko digute, umorea eta magia uzartzen dituen lana. Saioa hasiera doa, baina, magoa falta zaie. Halako baten, azalduko da magoa, baina, laguntzaile barik; ia Antzuolako ze umeek laguntzen dion! Laguntzaile berri horri magia egiten erakutsiko dio.



Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen *Supituki* ikuskizuna eskainiko digute.

Asteburu bete-betea izango da umeendako. Bihar, zapatua, ere izango dute umeek zerekin gozatu; Galtzagorri elkarteko

Alaitz Muro ipuin kontalariaren emanaldia izango dugu, 18:00etan, Udal Liburutegian. Denok gonbidatuta zaudete.

HERRI MAILAKO PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUAK

Abenduak 17
11:00: Andoitz Aranburu eta Iker Irizar - Mikel Bargiela eta Jon Pagaldai
Ondoren, Luis Larrea eta Jon Aranguren - Aitor Aranguren eta Xabin Muruamendiarrak

EMAITZAK

Abenduak 3
Luis Larrea/Jon Aranguren- Mikel Urtzelai/J. Agirrebeitia 18-13
Mikel Muguruza/Migel Mari Jauregi- Andoitz Aranburu/Iker Irizar 7-18
Aitor Aranguren/Xabin Muruamendiarrak- Joseba Lezeta/Juanjo Aranburu 18-5
Erik Lizarralde/Joseba Azkarate- Mikel Saralegi/Josu Agirrezabal 7-18

Abenduak 10
Mikel Bargiela/Jon Pagaldai- Juan Simon Aristi/Jose Manuel Aranburu 18-5
Jose Mari Iturbe/Jose Mari Mendizabal- Jon Arregi/Eneko Zabaleta 18-1
Patri Bideluze/Andoni Balerdi- Luis Larrea/Jon Aranguren 0-18
Mikel Urtzelai/J. Agirrebeitia- Mikel Muguruza/Migel Mari Jauregi 15-18
Joseba Lezeta/Juanjo Aranburu- Erik Lizarralde/Joseba Azkarate 18-9
Mikel Saralegi/Josu Agirrezabal- Aitor Aranguren/Xabin Muruamendiarrak 13-18

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA
Abenduak 17
15:45: Antzuola-Gazteak (Erregionalak)

PILOTA
Gabon jaien ondoren jarraituko dute pilotariak denboraldiarekin. Orain, oporralditxoa hartu dute. Olalde elkarteko mutilek.

EMAITZAK

FUTBOLA
Eibartarrak 1 Antzuola 5 (Erregionalak)
Antzuola 5 Bergara 1 (Gazteak)

PILOTA
Aurreko asteburuan, zubia zela eta ez zuten partidurik jokatu.

HERRITARREN HITZA / Alaitz Jauregi · Langilea

Urtero berdin

Gabonak ailegatu direla ta alde danetan *Zorionak! Gabon zorionsuak!* edo ta eurei buruzko artikuluak beste-rik ez ditugu irakurtzen. Emoten dau urteko sasoi importante bakarra dala, besterik ez balego bezela. Ba neretzat Gabonak urte bukaerako egunak besterik ez dira. Gabonetan egin geinkena, berdin berdin urteko beste sasoiaren egin geinke. Hasteko, jarri dozue sekula baskula baten tragatzen ditugun tonelada alimentuak? Erdixakin nahikua edukiko giñuke, ta

sobrekin zenbat behartsun triapak beteko giñuzken! Elkartasuna, laguntasuna... Telebisiñuan eskatu besterik ez dabe egitten, bape merezi ez daben progama kutre batzutan. Zergatik ez dabe ikuslien borondatia eskatu biharran audientziakin lortzen dituen billoiak bihar dituenari bialtzen? Gainera biharrak urte guztian daude, ez 10 egune-



"Gabonetako sobrekin zenbat behartsuren triapak beteko giñuzken!"

Hiper Maxi Mega Supermerkau horretako batera jun nintzan etxeko erre-

tan bakarrik. Gainontzeko 355 egunetan inor akordatu be ez? Ta erregalutan gastatzen dogun dana? Benga, danok zoruak bezela dirua gastatzera! Urtarri-lan 7ttik aurrera, berriz, prezio laurdenian dauz-kagu gauza igualak!


kauak egittera ta han ikusten dot pasillo erdixan "OFERTA" sekulako pankartia. Mahai haundi bat zan bildots haragixakin. Normalian baino garestixagua zeguan, baina zelako jende pillia alkarri zeinek bandeja ederrena eskutik kenduko! Buenoooo... Ura be edan ezin daben lurralde-tan hau dana ikusiko balebe... Bukatzeko zera esatia geratzen jat: ba nik esandakuei kasorik be ez, eta bakoitzak egin deixela egokixen pentsatzen jakona. Ondo pasau danok urte bukaerako egun honek.

LABUR

Anelkar, Bidezko Merkataritza bultzatzen

Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko postua jarriko du Anelkarrek; zapatuan, 19:00etatik 20:30era; domekan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Janaria, artisautzako produktuak eta Gabonetako otarrak erosteko aukera izango dugu.

Herrialde behartsuei modu duin baten laguntzea da helburua. Gogorarazi nahi dute, gainera, Arrasateko dendan urte osoan zehar saltzen dituztela produktuak.



ZURE OPTIKA

ITZIAR UGARTE

Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE. 943 08 26 87
Eskola Politeknikoaren ondoan

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko abenduaren 16a / 250. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Gaztetxoendako asteburuetarako aisialdi lokala zabalduko dute urtarrilean


IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalak urtarrilean zabalduko du 11 eta 16 urte bitarteko gaztetxoendako asteburuetarako aisialdi lokala. Hantxe aisialdiko ekintzak egin ahal izango dituzte neska-mutilek arratsaldeetan, begirale baten gidaritzapean.

Udaleko hainbat ordezkari herriko gaztetxoekin elkartu, eta eurendako lokala ipintzeko duten asmoaren berri azaldu diete.

Udala horrelako lokal bat gertatzeko lanetan ari zela esan digu Izaskun Larreak. Gainera, herriko hainbat gurasok Kultura, Euskara, Gazteria, Hezkuntza eta Turismo batzordean eskaria egin zuen. Beraz, eskaera horri eta gaztetxo beharrei erantzunez, erabaki dute lokala datorren urtarrilean zabaltzea.

Elgetan 11 eta 16 urte bitarteko 30 neska-mutil inguru daude, eta neguko asteburuetan, arratsaldeetan, euren aisialdirako gune baten beharra zeukaten. Izaskun Larrearen esanetan, "bada adin tarte bat non neska-mutilak kalean geratzen diren.



Seguru asko eliza ostean, lehengo tabako dendan, ipiniko dute 11 eta 16 urte bitartekoendako lokala.

Gurasoengandik alden du nahi dute, baina gaztetxera edo tabernetara joateko gaztetxoak dira oraindik; eta haiek ere merezi dute euren aukera".

BEGIRALEAREKIN

Lokal horretan mahai jokoak, mahai futbola, telebista... egongo dira, eta euren ekintzak antolatzeko aukera ere izango dute gaz-

tetxoek; betiere, begirale baten gidaritzapean. "Oraindik abian ipini arte ez dakigu antolamendua nolakoa izango den. Adin askotariko gazteak daudenez,

Gaztetxoaren asmoa da aisialdian kalean egiten dutena egitea, baina epeletan

zalantzak sortu dira elkarrekin nola moldatuko diren; baina hori begiralearekin adostuko dute; betiere, ordutegia eta elkar errespetatuz".

Gazteen asmoa da "lagunekin egotea, eta kalean egiten duguna egitea, baina epeletan".

ASTEBURUETAN, ARRATSALDEETAN

Lokala herriaren erdialdean ipiniko dute, seguru aski eliza ostean, lehen tabako denda zegoen lekuan. "Lokalaren banaketa oraindik zehazteko dago, baina horrek ere baldintza dezake adinen arabera bereizketa", Larrearen esanetan.

Urtarriletik maiatzera bitartean egongo da zabalik, zapatu eta domeka arratsaldeetan, 16:00etatik 22:00etara bitartean.

HERRITARREN HITZA / Igor Arizmendiarieta • Irakaslea

"Argirik gabe"

Gabon giroan sartzera goazen garai honetan, gauza batek eman dit atentzioa azken urte hauetan. Jai giro honetan lehenbailehen murgildu asmoz, edonon eta oso goiztiar ikus ditzakegu herri eta hirietako kaleak Gabonetako koloretako argiz apaindurik. Urtetik urtera gure karraketan argi hauek denboran azkarrago eskegi eta beranduago kentzen dituzteneko ustea dut. Aspaldidanik Gabonen etorreraren mezulari, Gabonen etorrera aste asko aurretik iragartzen digute egun. Ez da arraroa azaroaren erdialdetik aurrera,

leku askotan argi hauek piztuta ikustea. Kontuan izanda Gabonak abenduaren 22an hasten direla (edo pixka bat lehenago), alperrekoa ikusten dut argien erabilera goiztiar hau. Lekuz kanpo harrapatzen naute ni neu behintzat. Bat-batean argiak ikusten ditut edonon, eta esaten diot neure buruari: hilabete eta erdi falta da eta Gabonetarako!



"Gabonetako argiek lekuz kanpo harrapatzen naute ni neu behintzat"

Argi hauen erabilera logikoagoa egin beharko genuke, lukete Udalek edo dagokienez. Argiak denboran beranduago piztu daitezke, gauetan ordu jakin batetik aurrera itzaliz. Bide batez energia eta ekonomia gastu handi bat ekidinez. Badakit argi hauek marketing-a direla eta erosketetan eragin handia dutela, baina honek ez du kentzen erabilpen egokiagoa egitea.

Betidanik izan dut amets bat, gustura proposatuko nuke Euskal Herriari Gabon oso batzuk Gabonetako argia gabe pasa, eta bertara bideratuko genukeen gastu guztia beste premiazko zeregin batzuetara bideratzea, bide batez energia kontsumoa gutxituz. Hau posible izango ez balitz, aste bat argirik gabe pasatzea ere onartuko nuke, edo kasurik txarrean egun bat argitape-nik gabe, berdin zait. Baina gauzak asko aldatzen ez badira, hurrengo urteetan gai honetan "argirik gabe" jarraituko dugula uste dut.

LABUR

Espaloiak bertso porra antolatu du finalaren aitzakian


Abenduaren 18an jokatu du Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala: Egaña, Lujanbio, Iturriaga, Arzallus, Maia, Mendiluze, Elortza eta Colina izango dira hantxe. Eta finalaren aitzakian Espaloiak porra antolatu du. Asmatu beharko da finaleko sailkapena, eta gehien gerturatu denak edo denak asmatzen dituenak bi lagunendako afora irabaziko du. Parte hartzeko, abenduaren 17ko 14:00ak bitarteko epea dago.

KULTURA

Señor No eta Aterkings taldeen rock-and-rolla gaur Espaloian

I.A.

Gaur, barikua, rock-and-roll doinuek hartuko dute Espaloia aretoa. Señor No eta Aterkings taldeek kontzertua eskainiko dute 22:30ean hasita. Kontzerturako sarrerak zortzi euro balio dute eta bazkideendako, berriz, sei euro.



Señor No taldeak azken lan akustikoko abestiak joko ditu, besteak beste.

Rock-and-roll zaleendako hitzordu aproposa da gaurkoa. Markinako eta Elgoibarko bost lagunek osatzen dute Aterkings taldea. Bertsiio batzuk jotzeko asmoz elkartu eta pixkanaka ezagun egin ziren, eta baita maketa grabatu ere. Aurten, otsaileen, taldeak Rock-and-roll diskoa grabatu zuen eta bertako doinuek entzun ahal izango ditugu gaur gaueko kontzertuan: punk-rock bizia, *garage* piezak; eta baita *glam* kutsua dutenak ere.

DONOSTIAKO TALDE EZAGUNA

Señor No taldea Donostian sortu zen 1993an. 70eko hamarkadako rock gogorrenaren eta 77ko punkaren eragina nabaria da

euren doinuean. Europako eszenatokira asko zapaldu eta hainbat lan argitaratu ondoren, 2005eko udazkenean zuzenean grabatu-

tako *Señor Sí* disko akustikoa kaleratu zuten, eta bertako doinuek entzungo dira gaur, besteak beste.

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Torrealdeko etxeen baldintzak eskuragai

I.A.

Babes Ofizialeko Etxebizitza gaineko batzarra egin zuen martitzenean Udalak herritarrekin. Izena emateko behar diren baldintzen berri emateaz gain, jakinarazi zuten lanak Gabonen ostean hasiko dituztela.

kide edo gehiagoko bizikidetzak unitateak 33.100 euro baino gutxiago; eta kide bakarrek 24.000 euro baino gutxiago. Urteroko sarrerak ezingo dira izan 9.000 euro baino txikiagoak; gutxitasuna duten pertsonen kasuan, 3.000 euro baino txikiagoak.


EPEAK ETA PREZIOAK

Izena eman eta agiriak aztertu ostean, maiatzean edo ekainean egingo dute zozketa. Eraikuntza lanak, berriz, urtarilean hasiko dira eta amaitzeko ipini duten epea 18 hilabetekoa da.

Asteon hasi eta urtarrilaren 31ra bitartean eman beharko dute izena udaletxean Babes ofizialeko Etxebizitza parte hartu nahi dutenek. Eskatzaileak zenbait baldintza bete behar dituzte, hauen berri udaletxean edo www.elgeta.org helbidean jaso daiteke.

Etxebizitzaren prezioak Eusko Jaurlaritzak ipintzen ditu. 75 metro koadrotik gorako etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzak 1.137,19 euro balio du; 75 metro koadrotik behar-koetan, berriz, 1.250,90 euro. Gara-je eta trastelekuetan 454,67 euro balio du metro koadroak.

Baldintza nagusiak dira adin nagusikoa izatea, aurrez etxebizitza baten jabe ez izatea, eta bost urtez Elgetan erroldatuta egotea. Bestalde, gehienezko eta gutxienezko diru sarrerak egiaztatu behar dira eskaera egiteko: bi



Gabonetako argiak gaur piztuko dituzte

Gaur, barikua, piztuko dituzte Gabonetako argiak eta urtarriaren 9ra bitartean iluntzero egongo dira piztuta. Aurtengo berrikuntza da plazan argi gutxiago ipini dituztela; eta horren ordez herriko lau sarrerak apaindu dituzte Gabonetako irudidun argiekin. Iaz 1.700 euroko kostua izan zuten argiek eta aurtengo kostua ere antzerakoa izango dela esan digute Udaletik. Bestalde, Andra Mari plazako arkupeetan jaiotza ipini dute./I.A.



Urtarilean hasiko dira babespeko etxeak egiten Torrealdean; orain libreekin dihardute.

LABUR

EHNA agiria tramitatzeko aukera izango da bihar, zapatua, Elgetako udaletxean

Bai Euskal Herriari taldeak EHNA tramitatzeko aukera eskainiko du bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Agiria eskuratu nahi duenak udaletxera joan beharko du, hiru argazki, errolda agiri eta 15 euroekin.

smsoinu

Poltzikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

7505
zenbakira

Deiaren prezioa:
0,90 + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

DHARRAK

1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
 Bertan jasoko duzu beharrezko dutun informazio guztia.

2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jarraitze zure homologatzaileekin harremanetan. Alta ematean doan da eta KB jaitziera bakarrak ordaindu beharko duzu. Kasu gutxietan deia eta GPRS sistemari alta ematean doan dira.
 * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora / * Vodafone: deitu 123-ra / * Movistar: deitu 609-ra

3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabilizaleek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu **902 01 21 48** telefonora.

ABESTIAK POLIFONIKOAK (sms 1) Abestiaren izena (Abeslaria) + KODEA

- Himnoak**
 Eibar + EIBAR
 Athletic Club + BILBAO
 Osasuna + OSASUNA
 Real + REAL
- Pop-Rock**
 Aitormena (Hertzainak) + AITORMENA
 Aizkolari (Kortatu) + AIZKO
 Amore amore (Karidetsu berrak) AMORE
 Betriak okertuta (Lin Ton Tsun) + BEGIAK
 Bi Minutero (Hertzainak) + BIMINU
 Duta manifest (Femín Maguza) + DUB
 Egumero (Hertzainak) + EGUNERO
 EH Sukarra (EH Sukarra) + SUKAR
 Errotan mende, nosotros amen (La Polka) IELLOS
 Enamorado de la muerte (Pep) + ENAMO
 Etorkizuna (Etsaiak) + ETORKI
 Ezer ez da betiko (Ken7) + EZER

- Gora Herria (Negu Gorriak) + GORA
 Hator Bel-Air (Bide Ertean) + BELAIR
 Haizea (Ken7) + HAIZEA
 Hegal egiten (maiz) + HEGAL
 Ikusi (Dierium Tremens) + IKUSI
 Ilargia (Ken7) + KEN
 Inpermuen ate joka (Gatzib) + INPER
 Jokin Urain Hitzak (Bide Ertean) + JOKIN
 Kaixo (Jaz) + KAIKO
 Lau Teilatú (Itzi) + ITOIZLAU
 Laztana (Lazten) + LAZTA
 Lotuta egon arren (Kokein) + LOTUTA
 Loretoa (Xoxu) + LOREA
 Marea Gora (Itzi) + MAREA
 Musturrek sartunde (Gatzib) + MUSTURREK
 Nicaragua (Kortatu) + NICA
 No time for love (Hertzainak) + NOTIME

- Salve (La Polka) + SALVE
 Sari Sarri (Kortatu) + SARRI
- Sorginen leizean (Etsaiak) + SORGIN
 Txatxo (Zarama) + TXATXO
 Txus (La Polka) + TXUS
- Trikitixa**
 Bexamela ta pastela (Maika ta bizi) + BEXAMELA
 Bokespok (Kopu Junkera) + BOKESPOK
 Hik lan eta nik jai (Tapi) + HIK
 Itsas ontzi baten (Kaxiano) + ITSAS
 Kupela (Españe eta Larrañaga) + KUPELA
 Mita galdera (Alatz / Madalen) + MILA
 Nirekin (Gozategi) + GOZATEGI
 Ny Hira (Kopu Junkera) + HIRA
 Txanpon baten truke (Alatz / Madalen) + TXANPON
- Folk
 Arrratsalde honetan (Sorotan Bela) + SOROTAN

- Bai euskarari (Paraboa) + BAI!
 Bakezaleak (Anje Duhalde) + BAKE
 Bizkaia Maite (Berito Larrazki) + BIZKAIA
- Eperrak (Anje Duhalde) + EPERRAK
 Euskal Herriari Euskaraz (Osakni) + EUSKAL
 Euskaldun berriaren balada (Osakni) + EUSKALDUN
 Ez da posible (Piper Oroborka) + POSIBLE
 Furra Furra (Osakni) + FURRA
 Galzitarra noa (Osakni) + GALZIARRA
 Gemikako Arbola (Gonzal Mendibil) + GERNIKA
 Haika Mutil (Mikel Laboa) + HAIKA
 Izarren hautsa (Xabier Leta) + IZARREN
 Lapon hartu ta (Paraboa/Pep) + LEPOAN
 Marinelaren zai (Sorotan Bela) + MARINE
 Nere herriko neskatza maite (Larrazki) + NERE
 Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) + NON
 O! Ama Euskal Herria (Larrazki) + OIAMA

- Tirauki (Osakni) + TIRA
 Txabamabatzinabatu (Mikel Urdangarin) + TXATXA
 Txoria txori (Mikel Laboa) + TXORIA
 Zaindu maite duzun hori (Piper Oroborka) + ZAINDU
- Herrikoia**
 Bagare + BAGARE
 Desde Santurce a Bilbao + DESDE
 Ikusi Mendizaleak + MENDI
 Pinto-pinto + PINTOX
 San Simon eta San Judas + SAN
Jaietakoak
 Artillero dale fuego + ARTILLERO
 Manjaita (Kopu Junkera) + JAIJA
 San Fermín + FERMIN
 San Martzialak alardea + SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)

- Soinu izena + KODEA**
 1,2,3...Real! + REAL
 Athletic Iuep! + IEUP
 Buztan bertsiara + BERTSO
 Hartu... Aitaren ta semea... + AITAREN
 Hartu... Ansar + ANSAR
 Hartu... Argentinarra + ARGEN
 Hartu... Mexikarra + MEXIKO
 Hartu... Miami + MIAMIOL
 Independentsia! + INDEPEN
 Irrintzia + IRRINTZI
 Jotake irabazi arte! + JOTAKE
 Milazu! (pilota) + MILAZU
 Txalaparta + TXALA
 Txooxt + TXOTX

LOGOAK (sms 1)

- LAU1** **LAU3**
NUKLEAR **LORA**
SORGIN **ARRANO**

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko abenduaren 16a / 31. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Tranbiaren proiektua udaletxean dago ikusgai

OIHANA ELORTZA

Debagoieneko tranbiaren proiektua datorren egunean aurkeztuko dute jende aurrean Santa Anan, 17:00etan. Bederatzi geldine jasotzen ditu Oñatin proiektuak. Alegazioak aurkezteko epea urtarrilaren 18an amaitzen da.

Debagoieneko tranbiaren proiektua udaletxean ikus daiteke. Hirigintza Departamentuan dago txostena eta bertan ikusi daiteke tranbia nondik pasako den Oñatin eta geltokiak non izango dituen, besteak beste. Hala ere, proiektuaren aurkezpen ofiziala datorren astean egingo dute Santa Anan. Jaurlaritzako ordezkariak etorriko dira aurkezpena egitera eta proiektuaren maketak erakutsiko dituzte. Abenduaren 22an da jende aurreko aurkezpena, 17:00etan.

Tranbiaren proiektu hau ez da erabatekoa, behin-behinekoa da. Alegazioak eta aldaketak aurkezteko epea zabalik dago. Urtarrilaren 18a arte aurkez daitezke alegazioak.



Bergaran joan den otsailean aurkeztu zuten tranbiaren proiektua.

TRANBIAREN BIGARREN FASEA

Oñati tranbiaren proiektuaren bigarren fasean sartzen da. Lehengoa Aretxabaletatik Bergararako ibilbidea da. Jaurlaritzak

pentsatu zuen 2005 bukaeran lanak hastea. Oñatiko proiektuaren lanak noiz hasiko dituzten ez dute zehaztu baina egiten 36 hilabete beharko dituzte.

GOIENKARIA

MENDIA ETA NATURA ARGAZKI LEHIAKETA


Ia 150 argazki aurkeztu dituzte

O.E.

Ia 150 argazki aurkeztu dituzte Aloña Mendiko Mendi Sailak antolatu duen argazki lehiaketara. Bi gai izan ditu lehiaketak: Mendia eta Natura atalean, Bergarako argazkilarik batek irabazi du lehen saria eta Ingurumena-ri Egindako Erasoen atalean, Berangoko mutil batek. Epaima-

haiko kideen arabera "maila oso oneko" argazkiak aurkeztu dituzte eta "Euskal Herri osotik ez ezik, Malagako eta Algecirasko argazkilarien lanak ere iritsi zaizkigu". Oñatiko lau argazkilarik hartu dute parte lehiaketan.

Lehiaketara aurkeztutako lan batzuk kultura etxeko erakusketan gelan daude ikusgai gaurtik urtarrilaren 6a arte.



Mendia eta Natura atalean aurkeztu dituzte argazki gehienak.



Azaroko saria eman du Txandak

Maria Nieves Gartzia Urmenetak irabazi du Txandak azaroan zozketatu duen asteburua landetxe batean. Txandako txartela erabiltzeagatik egiten du zozketa hile oro dendarien elkarteak.

Bestetik, oraindik ez dira agertu 10 diru sarien irabazleak. 1.200 euroko saria 32005 zenbakiarendako da eta 150 euroko beste bederatzi sariak, 2005ean amaitzen diren txartelak dituztenendako. Sariak jasotzeko epea urtarrilaren 3an bukatzen da. /O.E.

LABUR

700 postal bidali dituzte Laixanek antolatutako Gabon postal lehiaketara

Guztira 700 postal aurkeztu dituzte Laixanek antolatu duen Gabonetako postal lehiaketan. Herriko ikasleek hartu dute parte lehiaketan, eta sariak domekan emango dituzte, Gaztelekuan, 18:00etan. Bizar Zuri egongo da sari banaketan.

Bestetik, Laixanek kanta afaria egingo du gaur Nekazarien Elkartearen, eta Santa Anan antzerkia dago. Bihar iluntzean, Garbara Abesbatzak kontzertua egingo du Agustindarren elizan.

Elkartasun afaria egingo dute gaur Bidaurretan eta bihar azoka herriko plazan

Parrokiako Misio Taldeak elkartasun afaria egingo du gaur, egubakoitza, 20:30ean, Bidaurretako fraideen aretoan. Afaria doan da baina borondatea eskatuko dute Haitin ambulatorio bat egiteko. Bestalde, Elkar Hezik Elkartasun Urratsak azoka antolatu du zapatu goizerako. Hainbat GKE egongo dira euren produktuak saltzen eta jasotako dirua Intermon Oxfam-endako izango da.

MERKEOPARI



Gabonetan oparitzeko behar duzuna!



lbargarai 14 • Bergara • Tel.: 943 76 55 46 • merkeopari@yahoo.es • www.goiena.net/blogak/merkeopari

Olentzero, Olentzero, gure etxian saldia bero...



Abenduaren 22an, arratsaldeko 15:15ean,
Haur Hezkuntzako Gabonetako Jaialdia, Eskolako aretoan.



Abenduaren 24an, 11:00etan,
Eskolan elkartuko gara Olentzerorekin irtetzeko.



ETORRI GUREKIN!

SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA - HHE-EPA

Bergarako ikastetxe publikoak



San Martin Agirre
herri eskola



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI

Tel.: 943 71 63 22

Faxa: 943 78 15 51

**Eraman
dotoretasuna
zure etxera**



iñarra

**Masajeak
eta estetika**

**Gabonetan ere,
zain zaitetz eta zain itzazu**

**OPARITU OSASUNA
ETA EDERTASUNA**

Opari-txartela

- Tratamendu sendotzailea txokolate erara
- Gorputzeko peelinga txokolate erara
- Erlaxatzeko masajea olio-esentziekin
- Aurpegiko tratamenduak ekialdeko teknikekin
- Eta beste tratamendu batzuk

Hauek ere baditugu

- Sauna japoniarra infragorriekin
- Solarium bertikala
- Laser depilazioa
- Dietista, nutrizionista
- Osteopatia
- Kirol-masajea

Zatoz informatzera!

